

NAFARROAKO EUSKARAZKO KOMUNIKABIDEEN BALIO SOZIALA ETA PREMIAK

EUSKARAREN NAFAR KONTSEILUKO KOMUNIKABIDEEN LAN-BATZORDEARENHAUSNARKETA ETA PROPOSAMENA

Iruñean, 2024ko ekainaren 28an

Aurkibidea

SARRERA	2
1. GERTUKO KOMUNIKABIDEAK, DEMOKRAZIA BERMATZEKO GAKO	2
2. EUROPAKO PARLAMENTUAK HARTUTAKO NEURRIAK	3
3. EUSKARAREN BIZIBERRITZEA NAFARROAN	4
4. EUSKARAZKO KOMUNIKABIDEEN BALIO SOZIALA	6
5. NAFARROAKO EUSKARAZKO KOMUNIKABIDEEN ERREALITATEA	10
6. TRANTSIZIO DIGITALA: SEKTOREA BIRMOLDATZEKO UNEA	17
7. BIDEGURUTZEAN: APUSTU SENDO BATEN BEHARRA	21
8. EUSKARAZKO KOMUNIKABIDEEN ITZULTZE EKONOMIKOA	22
9. AZKEN ONDORIOAK	22
BIBLIOGRAFIA	23

SARRERA

Txosten hau EUSKARAREN NAFAR KONTSEILUAREN barneko KOMUNIKABIDEEN LAN-BATZORDEAK idatzia da¹, 2024ko martxoa eta ekaina bitartean egindako gogoeta-prozesu baten ondotik. Euskarazko komunikabideen balio soziala, egungo egoera eta etorkizuna aztertu dira. Bertan, Kontseiluaren ordezkariak eta euskarazko komunikabideen sektorearen ordezkariak hartu dute parte. Alabaina, hainbat aditu ere gonbidatu dira gogoetara. Besteak beste, Eneko Bidegain (Mondragon Unibertsitateko ikertzailea), Javier Errea (Errea aholkularitza-agentziako zuzendaria), Libe Mimentza (Behategia – Euskal Hedabideen Behatokiako ikertzailea) eta Josu Aztiria (Elhuyarreko Adimen Artifizialeko koordinatzailea). Gogoetaren ondorio nagusiak jaso dira txostenean.

EUSKARAREN NAFAR KONTSEILUA hizkuntza-politikako gaitan Nafarroako Gobernuaren erakunde aholku-emaile izanik, [18/1986 Foru Legeak](#)¹ euskarazko komunikabideekiko ezartzen dituen betekizunak modu eraginkorrean betetzeko datu eta irizpide eguneratuak eta kontrastatuak ematea da txostenaren helburua.

Izan ere, 18/1986 Foru Legeak, Euskarari buruzkoak, III. tituluan, 27. artikuluan euskarazko komunikabideak diruz laguntzeko betebeharra jasotzen du.

III. TITULUA. KOMUNIKABIDE SOZIALAK

27. artikulua

1. Administrazio Publikoek komunikabide sozial publiko eta pribatuetan euskarak gero eta presentzia handiagoa izan dezan sustatuko dute.

Horretarako, Nafarroako Gobernuak diruz eta materialez laguntzeko planak gauzatuko ditu, komunikabideek euskara progresiboki eta ohiko moduan erabil dezaten.

2. Foru Komunitateak kudeatzen dituen telebista eta irrati emisora eta gainerako komunikabideetan, Nafarroako Gobernuak euskararen presentzia egokia begiratuko du.

Kontuan izanik euskararen zein komunikabideen testuingurua etengabe aldatzen ari dela, gaur egun 18/1986 Foru Legea modu eraginkorrean betetzeak halabeharrez eskatzen du digitalizazioa, euskarazko komunikabideen izaera berezia eta Nafarroako egungo egoera soziolinguistikoa kontuan hartzea. Faktore horiei buruzko hausnarketa partekatua da txosten hau, euskarazko komunikabideek duten funtzio soziala indartu eta aktibatzeke neurriak proposatzera datorrena.

1. GERTUKO KOMUNIKABIDEAK, DEMOKRAZIA BERMATZEKO GAKO

Gizartearen egungo testuinguru globalizatuan, komunikabideek herrialdeen nortasun kultural eta linguistikoa zaintzen laguntzen dute. Europako estatuak horretaz jakitun dira eta hasiak dira neurriak

¹ 2025eko ekainaren 24ko bilkuran, Euskararen Nafar Kontseiluak txosten hau bere egin eta Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutuak bere webgunean argitara zezan onartu zuen.

hartzen. Alabaina, komunikabideak zaintzeko premia hori biderkatu egiten da hizkuntza gutxituen kasuan.

Une honetan, Nafarroan euskara indartzeko, funtsezko tresna dira euskarazko komunikabideak, besteak beste euskara eguneroko bizitzan integratzen laguntzen dietelako herritarrei eta komunitate linguistikoa kohesionatzen duelako. Nekez eginen du aurrera euskarak Nafarroan ez badu funtzio horiek beteko duen komunikabide-sare sendo baten babesa eta aktibazioa.

Hizkuntzaz harago ere badoa auzia: gertuko komunikabideak demokrazia bermatzeko gakoak direla diote ikerketek^{2,3,4,5}. Europako Parlamentuak, komunikabideek edozein demokraziatan duten ezinbesteko funtzioa aitortuta eta gizartearen erresilientzia eta inklusibitatea sustatzeko ezinbestekoak izanik, [Europako komunikabideak laguntzeko ekintza-plana onartu zuen aho batez 2021ean](#)⁶, eta Europako estatu kide guztiei eskatu zien diruz lagundu ditzatela, espresuki, hizkuntza erregional eta minorizatuetao edukiak sortzen dituzten komunikabideak.

Izan ere, demokraziarako gako dira, baina inoizko aldaketa handiena dute aurrez aurre: trantsizio digital batek zeharkatzen ditu, kontsumo-ereduak erabat irauli dira urte gutxitan, eta orain arteko negozio-ereduek behea jo dute. Krisi betean daude.

Bidegurutze zailean daude Nafarroako euskarazko komunikabideak ere: prekarizaziotik atera eta digitalizazioaren bidea hartu, edo digitalizazioa komunikabide indartsuenen eta txikien artean sortzen ari den arrakalak janen ditu. Demokraziaren oinarritzko printzipioak eta euskara bera daude jokoan.

Ezin da ahaztu irabazi asmorik gabeko enpresa eta entitateak direla euskarazko komunikabideak. Are gehiago, hedabide komunitarioak dira denak, gizarte-ekimenetik eta herritarren konpromisoarekin eraikitakoak. Europa osoan fenomeno berezia eta bakana dira, zaindu beharrekoa, kohesio sozialerako erreminta oso ahaltsua baitira.

2. EUROPAKO PARLAMENTUAK HARTUTAKO NEURRIAK

Komunikabideen krisi honetan demokrazia dago jokoan. Gero eta kontzientzia handiagoa dago nazioartean gertuko hedabideek demokrazia soziala bermatzeko duten ezinbesteko funtzioaz. Ikerketek hala frogatzen dute^{2,3,4,5}. Herritarren pertzepzioa ere bide beretik doa Europan: gertuko komunikabideak, informazio orokorra eskaintzeaz gain, [integrazio soziala eta demokrazia sustatzeko beharrezko tresna direla uste dute](#)⁷. Eta aitortzen dute gizarteari ahotsa eman, pertinenentzia-sentipena sortu, udalerrriaren funtzionamenduaren berri eman eta herriko memoria egituratzen ere laguntzen dutela.

Europan, historikoki, errezeloz begiratu zaio hedabideak diru publikoz finantzatzeari, independentzia editoriala eta prentsa-askatasuna arriskuan jar ditzakeelakoan. Orain, ordea, irauli egin da begirada. Demokrazia bermatzeko ezinbestekoak direla ikusita, informazio faltsuak sortzen duen arazoaren

dimentsioaz jabetuta eta digitalizazioak, kontsumo-ohitura berriek eta prezioen gorakada globalak azken urteotan sektoreari eragin dioten egoera ikusita, haiek laguntzea jarri du lehentasunezko helburu.

[Europako Batzordeak eskatuta⁸, Europako Parlamentuak aho batez onartu zuen, 2021ean, Hamarkada Digitalean Europako komunikabideen berreskuratze eta eraldaketa bultzatzeko ekintza-plana⁹](#). Planaren arabera, une historikoa du Europar Batasunak orain komunikabideen sektorea lagunduko duten politikak garatzeko. Izan ere, sektoreak erronka handiak ditu parean. Eta komunikabideak Europako demokrazia bermatzeko ezinbestekoak izanik, eta gizartean inklusibitatea eta eraldaketekiko erresilientzia garatzen laguntzeko gaitasuna handia dutela kontuan hartuta, parlamentuak funtsezkoa ikusi du komunikabideen ekosistema berrerekatzeko neurriak hartzea.

Era berean, ohartarazi du komunikabide txikiak ezin direla handiekin lehiatu, eta Europako estatu kideei eskatu die [diruz lagundu ditzatela hizkuntza erregional eta minorizatuetoako edukiak sortzen dituzten komunikabideak⁶](#).

Europako Kontseiluaren Biltzarrak ere gertuko komunikabide txikien inguruko kezka plazaratu zuen 2023ko urrian. Europako Kontseiluaren arabera, krisi ekonomikoak eta digitalizazioak ekarritako gertuko komunikabideen gainbeherak kolokan jar dezake udalerrri eta eskualde mailako demokrazian duten zeregina, baita komunitate horien kohesioan duten funtzioa ere. Oro bat, arreta berezia jarri du sortzen ari diren desertu mediatikoetan, eta ohartarazi du landa-komunitateek eta egoera sozioekonomiko ahuleko komunitateek arrisku handia dutela gertuko komunikabideen basamortu bihurtzeko.


Horren aurrean, [Europako Kontseiluaren ebazpenak gertuko komunikabideak laguntzeko neurriak har ditzatela eskatu die Europako estatuetoako gertuko eta eskualdeetoako erakunde publikoei⁹](#). Besteak beste, hau eskatu die: sostengu ekonomikoa emateko, haien independentzia bermatzeko neurriak hartzeko eta gertuko komunikabideen funtzio sozial garrantzitsuaz kontzientziazteko kanpainak abiatzeko. Europako Kontseiluaren arabera, publizitate publikoa da gobernuak eta toki entitateek gertuko komunikabideei laguntzeko erabil dezaketenen beste bide bat, eta horretan erakunde publiko horiei gardentasunez jokatzeko eskatu die.

3. EUSKARAREN BIZIBERRITZEA NAFARROAN

[2021eko Inkesta Soziolinguistikoaren datuen arabera¹⁰](#), azken 5 urteotan, 1,5 puntu gora egin du euskararen ezagutzak Nafarroan. 2016an, 16 urteko eta urte gehiagoko nafarren % 12,9 euskaldunak ziren eta % 10,3 euskaldun hartzaileak. 2021ean, % 14,1 da euskalduna eta % 10,6 euskaldun hartzailea. Euskararen ezagutzak, batik bat, 50 urtetik beherakoen artean egin du gora. Une honetan, nafarren % 24,7k du euskararen nolabaiteko ezagutza, eta herritarren gainerako % 75,3ak ez daki euskaraz.

Eskualdez eskualde begiratzuz gero, euskararen ezagutza iparraldetik hegoaldera nabarmen aldatzen da. 18/1986 Foru Legeak, euskarari buruzkoak, zedarritzen dituen hizkuntza eremuei so eginik: eremu euskaldunean % 75,9 da euskara gutxi-aski dakiena, eremu mistoan % 24,1 eta eremu ez-euskaldunean % 9,1.

1. grafikoa. Euskararen ezagutza, Nafarroan eta hizkuntza eremuaren arabera. 2021 (%).



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Euskaraz dakitenen multzoak demografikoki gero eta pisu handiagoa badu ere, [Hizkuntzen erabileraren 2021eko kale-neurketaren](#)¹¹ arabera, euskararen kale-erabilerak behera egin du azken bost urteotan. Une honetan, % 5,9koa da. Ondorio esanguratsuak ateratzen ditu: euskara gutxiengo batek bakarrik menderatzen duen eremuetan, euskal hitzunei zaila zaie euskara erabiltzea. Ez dago bizitza pertsonalaren zein sozialaren zeregin nagusiak euskaraz egiteko baldintza minimorik.

Txostenak nabarmentzen duenez, “euskararen erabilera baldintzatuta dago. Batetik, hizkuntza gutxituaren izaerak eragiten du: baldintza legal, politiko, sozial eta kulturek baldintzatzen dute hiztun elebidunek hizkuntza bat ala bestea hautatzea. Bestetik, hiztunen gutxiengo-izaerak ere baldintzatzen du, hiztun euskaldunak solaskide euskaldunak behar dituelako euskara erabili ahal izateko”.

Euskararen erabilera baldintzatu horrek nabarmen eragiten dio Nafarroako euskararen egoerari. Izan ere, nafar euskaldun gehienak euskaldun-dentsitatea nahikoa ez den eremuetan bizi dira: euskaraz ongi dakiten 37.438 nafar bizi dira eremu euskaldunean; gainerakoetatik, 83.623 eremu mistoan bizi dira, eta 13.557 eremu ez-euskaldunean. Eremu mistoan eta ez-euskaldunean euskaldunen dentsitatea txikia da: eremu mistoan euskaldunak herritarren % 12,6 dira eta, eremu ez-euskaldunean, herritarren % 1,6. Beraz, **euskararen erabilera zaila bihurtzen da euskaraz ongi dakiten nafarren % 72rentzat.**

Euskararen normalizazioan urratsak emateko, beharrezkoa da Hezkuntza arautuan neurriak hartzea. Baina demografikoki gero eta esanguratsuagoa den talde horri bestelako baliabideak ere eman behar zaizkio: euskara egunerokotasunean presente jarriko duten komunikabideak behar dira, euskaldunen komunitatea kohesionatu eta dentsitate erlatiboa handituko dutenak, elkarrekin euskaraz komunikatu ahal daitezkeen. Bestela, alferrikakoak izan daitezke Hezkuntzak egindako ahalegin eta aurrerapauso guztiak.

4. EUSKARAZKO KOMUNIKABIDEEN BALIO SOZIALA

Une honetan, euskararen normalizazioan salto kualitatibo bat emateko estrategikoak eta, une honetan, giltzarri ere badira komunikabideak. Jarraian, komunikabideen balio soziala xehatuko da, euskararen normalizazioa zein demokrazia sustatzeko duten potentzialtasuna ikusarazteko:

4.1. DEMOKRAZIA ETA JUSTIZIA SOZIALA

Komunikabideen sektoreak balio sozial handiko jarduna du edozein gizarte demokratikotan: informazioa, gardentasuna eta adierazpen-askatasuna bermatu, eta aniztasuna eta gizarte-garapena sustatzen dituzte. Hori dena ezinbestekoa da demokraziaren funtzionamendu osasungarria ziurtatzeko.

Nazioartean, gero eta kontzientzia handiagoa dago gertuko komunikabideak direla demokrazia soziala bermatzeko potentzial handia dutenak. "Gertuko demokraziak dira gizarte demokratiko guztien muina, eta gertuko komunikabideak dira paisaia mediatiko osasuntsu eta pluralistaren oinarria", halaxe jaso zuen 2023ko urrian Europako Kontseiluaren Biltzarrak apailaturiko txostenak.

BBCK egindako "Local News Partnership" ikerketaren arabera, tokiko agintarien kontuak eskatzeko gaitasuna dute, informazio garrantzitsua ematen dute eskualdeko gaien inguruan, eta eskualdeko iritziz aniztasunerako plataforma eskaintzen dute. Horren bidez herritarren parte-hartzea sustatzeko eta komunitatea egituratzeko gaitasuna izanik, kohesio sozialarentzat oinarritzkoak direla ondorioztatu du ikerketak.

Baina badira euskarazko komunikabideek betetzen dituzten bestelako funtzio sozialak ere, [Mondragon Unibertsitateko, Euskal Herriko Unibertsitateko eta Deustuko Unibertsitateko ikertzaileek egindako ikerketen arabera](#)^{12,13} Euskal hiztunen komunikaziorako tresna naturala izateaz gainera, euskara biziberritzeko osagai baliotsu asko dituzte. Hurrengo bi ataletan, ikerketa horren emaitzak aletuko dira.

4.2. EUSKARA NORMALIZATZEKO TRESNA BALIOTSUA

Komunitate linguistikorako kohesio-tresna dira

Euskarazko hedabideen artean badira euskararen lurralde osoa hartzen dutenak (gertuko komunikabideak) eta herri- edo eskualde-mailan aritzen direnak (tokiko komunikabideak). Bi komunikabide-motek gertutasun handia dute beren komunitatean. Tokiko komunikabideek, esaterako, eskualdeko edo herriko albisteak zabaltzen dituzte, bertako eragile eta protagonistei hitza ematen diete, elkarrekin beren ekimenen berri zabaltzen dute, herritarrek herriko gaien inguruko iritzia emateko aukera dute... Hala, herritarren bilgune bihurtzen dira. Talde bateko kide izatearen sentipen indartsu bat sortzen dute, eta herritarrak komunitatearen parte sentitzen dira horrela. Beraz, komunitate linguistikoaren kohesioa lortzeaz gainera, herri-kohesiorako tresna baliotsuak ere badira.

Euskara ez dakitenentzat euskararako sarbide dira

Euskarazko komunikabide indartsuak dauden herrietan, euskara ez dakitenak euskarara ekartzeko bidea ere badira tokiko komunikabideak, euskararekin harremanetan jartzen baitute euskara ez dakien

jendea. Euskararen normalizazio-prozesurako gutxietsi ezin den baliabide ahaltsua dira. Hala aitortu dute hizkuntza-politika guztiek: komunikabideen arloa estrategikoa da euskararen normalizaziorako edozein plangintzatan.

Erreferente euskaldunak sortzen dituzte

Komunitatearen kohesioarekin loturik, erreferente euskaldunak sortzen ere ekarpen baliotsua egiten dute. Izan ere, oro har, erreferente ez-euskaldunak azaltzen dira egun gizarteak kontsumitzen dituen sare sozialetan eta jasotzen dituen input informatibo askotan, eta, euskararen normalizaziorako, garrantzitsua da euskarazko erreferenteak sortzea gizartearen maila eta alor guztietan.

Euskaldunak sakabanatuta bizi diren eremuetan, euskarazko komunitatea egituratzen dute

Hiriguneetan eta euskaldunak oso sakabanatuta bizi diren eremuetan, euskaraz aritzeko eskura dituzten elkarteak, gizarte-eragileak eta komertzioak identifikatzen laguntzen diete herritarrei. Nolabait, euskal komunitatea elkar ezagutzen eta harremanetan jartzen laguntzen dute. Hala, elkarren artean euskaraz eroso jarduteko testuinguruak sortzen laguntzen dute, eta aldi berean, euskarazko komunitatea aktibatzea dakarte.

Euskararekiko pertzepzio soziala aldatzen dute

Garai batean, oso estereotipatuta zeuden euskal hiztunak, eta horrek euskararen normalizazioa oztopatzen zuen. Euskarazko komunikabideek, kontzientzia handiz, beste ohitura, bizimodu, jatorri eta erlijioetako euskal hiztunak erakusten dituzte, eta euskaldunen irudi estereotipatua hautsi eta aniztasuna normalizatzen lagundu dute. Euskararekiko eta euskal hiztunekiko zegoen pertzepzio soziala eraldatzen lagundu dute. Hala, oinarri errealistak ezartzen lagundu diote euskarari, egungo testuinguru globalizatuan edozein hizkuntzaren normalizaziorako ezinbestekoa den oinarria.

Euskarari prestigioa ematen diote

Urte luzez, hizkuntzaren gutxiespen eta bazterketaren ondorioz, auzitan egon da euskaraz gai tekniko eta espezializatuak hitz egin ote zitekeen. Egun, ordea, inork ez du zalantzan jartzen euskaraz edozein gairi buruz hitz egin daitekeenik, inguruan dituen hizkuntza hegemonikoetan egin daitekeen antzera; unibertsitateek garatutako terminologia espezializatua komunikabideek gizarteratu dute. Hizkera jasoari tokia eginez, euskarari prestigioa ematen lagundu dute: komunitatearen errespetua, balioa eta aitortza lortu du euskarak, eta harekiko egon daitezkeen pertzepzio negatiboak eta aurreiritziak leundu. Horrek euskara erabiltzea errazten du euskaraz dakitenen artean, eta euskaraz ikasteko motibazioa sortu, berri, ez dakitenen artean.

Euskararen digitalizazioa gauzatu dute

Aro digitalean, hizkuntza gutxituek, irauteko, ezinbestekoa dute Interneten egotea eta haienezako lan-tresna digitalak garatzea. Euskarak behar ditu lengoaiaren naturalaren prozesamenduari esker eta adimen artifizialari esker sortzen diren itzultzaile automatikoak, zuzentzaileak, euskaraz ulertu eta erantzunen duten laguntzaile birtualak... Eta teknologia hori guztia sortzeko, hizkuntzaren corpus handia eta kalitatezkoa behar da, euskarazko eduki digitalen bidez entrenatu behar baitira sare neuronalen

algoritmoak. Gaur egun, euskarazko komunikabideak dira corpus digital horren sortzaile nagusiak. Haiek sortzen dituzten testuak eta audioak dira algoritmoak entrenatu eta kalitatezko lanabes digitalak sortzeko oinarria.

Baina ez dira corpus horretatik elikatzen diren bakarrak, jarraian jaso den gisa.

Euskararen normatibizaziorako tresna dira

Euskaltzaindiak komunikabideek argitaratutako corpus bera erabiltzen du hizkuntzaren erabilerari buruzko erabakiak hartzeko. Beraz, corpora sortzeaz gainera, erantzukizun handia dute corpus horren kalitatean; euskarazko komunikabideek zorrotasun handiz egiten dute lan. Era berean, Euskaltzaindiak hartzen dituen erabakiak sozializatzeko bide eraginkorrena dira, modu naturalean txertatzen baitituzte esamolde eta termino berriak gizartean.

Hezkuntzarako erabilgarriak diren edukiak sortzen dituzte

Euskarazko komunikabideek sortzen dituzten edukiak baliabide oso eskuragarria dira euskara irakasten eta ikasten ari diren herritarrentzat ere, batez ere euskarak presentzia txikia duen testuinguruetan. Hezkuntza formalean ere erabiltzen dira: unibertsitateko, institutueta eta euskaltegieta irakasleek, batez ere. Komunikabide batzuek berariaz sortzen dituzte hezkuntza-eragileei laguntzeko materialak.

4.3. IDENTITATEA ETA KOMUNITATEAREN KOHESIOA

Nafarroako memoria ahots propioz osatzen laguntzen dute

Bertako protagonisten ikuspegia transmitituz, Nafarroako memoria ahots propioz osatzen lagundu dute, euskaratik eta komunitatearen barrutik sortua: eskualdearen berezitasunak jaso eta komunitatearen kontakizun propioa eraiki dute. Zeharka, herritarrak informatzeaz harago doan lana egin dute: eskualdeko ohituren, kezka sozialen, unean uneko eraldaketa sozialen kontakizuna sortzen joan dira. Inguru sozial eta kulturalaren eboluzioa erakusten dute.

Nafarroako memoriaren artxiboa osatzen ari dira

Zeregin garrantzitsua betetzen dute tokiko memoriaren artxiboa gordetzen. Hainbat eskualdetako egunerokotasunaren berri jaso dute urte luzez, eta herriko memoriaren artxiboa sortuz joan dira. Artxibo-lan hori era askotako formatuetan osatu dute: idatzizkoan, ahozkoan zein irudizkoan. Komunikabideen digitalizazioak denen eskura jarri du artxibo hori guztia, egungo herritarren eta belaunaldi berrien eskura. Areago, Nafarroaren inguruko ikerketa historiko eta sozialerako baliabide interesgarria ere bada komunikabideek gordetzen duten argazki-, audio- eta testu-artxibo multzo handi hori.

Gizarte-ereldaketan eragile indartsuak dira

Ingurumena, feminismoa, giza eskubideak eta bestelako gai sozialez hausnartzen eta gizarteratzen aitzindariak dira euskarazko komunikabideak. Ez soilik aitzindariak beste hizkuntzetako

komunikabideen aldean; kasu askotan, gizartearen aurretik doaz. Une honetan arreta berezia eskatzen dute gai horiek, eta, alde horretatik, gizarte-eraldaketan gakoak dira euskarazko komunikabideak, kontzientziazio sozialean eragin handia baitute.

Gizartean botere eta espazio gutxi duten kolektiboei tokia eskaintzen diete

Beste komunikabideetan oihartzun eskasa duten elkarte eta kolektibo batzuek arreta zabala lortzen dute euskarazko komunikabideetan. Modu horretara, LGTBI pertsonak, adinekoak, gazteak zein migratzaileak eta bestelako kolektibo isildu ugari ahots propioa lortzen dute gizartean. Gizarte-aniztasunari ekarpena egiten diote horrela komunikabideek. Sentsibiltate bereziarekin lantzen dira gai sozial horiek euskarazko komunikabideetan, kanpoko eragileek aitortuta.

Despopulazioari aurre egiteko tresna dira

Eremu euskaldunean herri txiki asko dago, populazio asko galdu dutenak azken hamarkadetan, eta euskarazko komunikabideek fenomeno horri jarraipen estua egin diote: kezka eztabaidara ekarri dute, eta hari aurre egiteko neurrietan parte hartu dute. Merkataritzarena edo eskolarena dira, seguruenera, euskarazko komunikabideetan leku gehien jaso dutenak. Tokiko komunikabideak dira herriko denda, taberna eta negozioen beharra eta funtzio soziala ongien azpimarratu dutenak. Eta aliantza ugari izan dira tokiko komunikabideen eta merkatarien artean (tokiko merkataritzaren aldeko kanpainak, deskontu-baleak, fidelizazio-txartelak, iragarkiak...). Berdin ikastetxeekin: herriko eskola irekia mantentzearen garrantziaz ohartarazi izan dute, eta arazo hori ikusarazi izan dute azken hiruzpalau hamarkadetan.

Gizarte- eta kultura-ekintzetan parte hartzea

Euskarazko komunikabideak, askotan herritik sortuak izanik, oso aktiboak izaten dira herriko gizarte-, kultura- eta kirol-ekintzetan. Besteak beste, ekintza horien guztien erregistro grafiko zabalak jasotzen dituzte, herriari eskainiz. Haiek ere antolatzen dituzte herriko ekimenak.

Euskal kulturgintza sustatzeko gunea

Kulturaren industriako arduradunen eta kulturaren sorkuntzan ari diren eragileen hitzetan, kulturaren sustapena egiteko eta kontsumitzaileetara iristeko, ezinbestekoak dira euskarazko komunikabideak. Euskal kulturaren susperraldian eragin zuzena izan dute.

Bestelako balio sozialak

Bestelako balio sozialak ere aitortzen dizkiete inguruko eragileek: etorkizuneko kazetarietarako prestakuntza-gune dira, elkarlanaren bidez beste komunikabideak garatzen eta finantzatzen laguntzen dute, inguruko enpresak laguntzeko eta sustatzeko tresna izaten dira, eta enpresa txikiak euskalduntzen laguntzen dute.

Atal honekin amaitzeko, interesgarria da euskarazko komunikabideen balio sozialaren txostena [Hizkuntzen erabileraren 2021eko kale-neurketaren](#)¹¹ ondorioekin erkatzea. Izan ere, agerian geratzen da Nafarroan euskaraz hitz egin ahal izateko eta euskararen erabileran salto kualitatibo bat emateko

beharrezkoak diren baldintzak sor ditzaketela euskarazko komunikabideek, euskarari prestigioa emateko, euskal hiztunen komunitatea egituratzeko eta euskaraz ez dakitenak euskarara ekartzeko gaitasuna baitute.

Ez dira Mondragon Unibertsitateko, Euskal Herriko Unibertsitateko eta Deustuko Unibertsitateko ikertzaileak hori uste duten bakarrak. [Euskaltzaindiak berak ere gaitasun horiek aitortzen dizkie gertuko eta eskualdeko komunikabideei, eta euskararen biziberritze-prozesurako gako ikusten du komunikabideok sendotzea](#)¹⁴.

5. NAFARROAKO EUSKARAZKO KOMUNIKABIDEEN ERREALITATEA

Euskarazko komunikabideei potentzial handia aitortzen bazaie ere, haien errealitatea ezagutzea funtsezkoa da Nafarroako gizarteari eta Gobernuari egin nahi zaion eskaera ulertzeko.

5.1. ZER DA EUSKARAZKO KOMUNIKABIDEA?

Euskaraz eduki soilen bat argitaratzen duen edozein komunikabideri ezin zaio esleitu euskarazko komunikabideei aitortzen zaien balio soziala. Beraz, garrantzitsua da argitzea zer den euskarazko komunikabidea: gizartea informatzeko eta demokrazia bermatzeko helburuz sortzen den euskarazko kazetaritza-egitura da, oinarrian enpresa-egitura duena. Ongi ezagutzen du euskarazko komunitatea eta euskaraz egiten du lan, nahiz eta gero bere edukia beste hizkuntzetara itzultzeko baliabideak erabil ditzakeen (itzulpen automatikoa, esaterako).

Euskarazko komunikabideen definiziotik kanpo geratzen dira euskaraz beren edukiaren zati bat bakarrik sortzen dutenak, baita erdaratan sortu eta euskarara itzultzen diren komunikabideak ere. Kanpoan geratzen dira euskaraz aritu arren kazetaritza-lana oinarri ez duten bestelako komunikatzaileak ere. Euskarazko komunikabideek aisialdirako eta entretenitzeko baliabideak ere eman ditzakete, baina haien egiteko nagusia da kazetaritza-jardueraz gizartea informatzea.

5.2. EUSKARAZKO KOMUNIKABIDEEN MAPA DESOREKATUA

Nafarroan izaera desberdineko komunikabideak daude: *Berria*, *Hamaika Telebista*, *Argia*, *Elhuyar*, *Nafarroako Hitza*, *Antxeta*, *Gazteberri*, *Ttap* aldizkaria eta abar Nafarroa osora iristen dira. Haiekin batera, tokiko 16 euskarazko proiektu komunikatibo daude, baina eremu geografiko oso zehatza estaltzen dute:

- Baztan-Bidasoan: Erran.eus, *Ttipi-Ttapa* aldizkaria, Xorroxin irratia, Antxeta irratia, antxeta.eus eta Xaloea telebista.
- Leitzaldean: Erran.eus *Ttipi-Ttapa* aldizkaria eta Karrape Irratia.
- Larraunen: Aralar Irratia, mailope.eus eta *Mailope* aldizkaria.
- Sakanan: Guaixe aldizkaria, Guaixe irratia eta guaixe.eus.
- Ultzama-Basaburuan: Amezti.eus, *Pulunpe* aldizkaria eta Esan Erran irratia.
- Iruñerrian: Xaloea Telebista eta Euskalerrria Irratia. Iruñerriko Burlata udalerrian, *Axular* aldizkaria.

2. grafikoa. Nafarroako tokiko euskarazko komunikabideak.



Iturria: Euskarabidea, moldatuta.

Euskarazko komunikabideen mapak erakusten du baldintza oso desorekatuak daudela Nafarroan, geografikoki zein tematikoki. Une honetan, 94 udalerriren eremu geografikoa estaltzen dute euskarazko tokiko komunikabideek, 442.095 biztanle inguru bizi diren eremua. Arnasguneetako eta Iruñerriatik gorako eremu geografikoa estaltzen dute, baina hutsunea erabatekoa da Iruñerriatik hegoaldera.

Hutsune tematiko nabarmenak ere baditu euskarazko kazetaritzak: ez dago Nafarroan sortzen den komunikabide orokorrik, ez espezializaturik. Literaturaz, jakintzaz, zientziaz, gazteez jarduten duten euskarazko komunikabide guztiak Nafarroatik kanpo ekoitziak dira. Nafarroako gizartearen behar bati eta hutsune bati erantzuten diote, ordea.

Horrek guztiak kolokan jartzen ditu euskal hiztunen hizkuntza-eskubideak Nafarroaren eremu oso zabal batean. Eremu ez-euskaldunean, ez dago euskarazko inolako tokiko komunikabide idatzizkorik, ez digitalik, ez eta irratirik ere.

5.3. EUSKARAZKO KOMUNIKABIDEEN IZAERA SOZIALA

Euskarazko komunikabideak gizarte-ekimenetik sortuak dira denak, herritarren konpromisoarekin eraikitakoak eta kultura eta hizkuntza ardatz dutenak. Fenomeno berezia da, bakana Europa osoan. Izaera juridikoari dagokionez, euskarazko proiektu komunikatibo guztiak, kultur elkarteak, fundazioak edo udal-komunikabideak dira —kontzesio bidez kudeatzen direnak—. Beraz, ez dago irabazi asmoko euskarazko komunikabiderik.

Irabazi ekonomikoa lortzea lehentasunezko helburu duten enpresa komertzialen aldean, herrigintzatik sortutako komunikabide horiek guztiek misio kultural eta sozial bat betetzea dute helburu, ez irabazi ekonomikoa bera. Euskara eta kultura zabaltzea lehenesten dute, baita boluntarioen laguntzari esker lan egin behar badute eta ekoizpena doan zabaldu behar badute ere.

Harpidetza- eta bazkidetza-sistema oso garatuak dituzte, eta herritarren ekarpen ekonomikoari esker bizi dira, neurri handi batean. Etengabe formula berritzaileak bilatu dituzte, fidelizazio-politiken bidez. Aitzindariak dira horretan ere, dirulaguntza publikoek eta publizitateak ez baitute bermatzen haien bideragarritasuna.

5.4. EUSKARAZKO KOMUNIKABIDEEN PREKARIZAZIOA

Nafarroako Gobernuaren erakunde autonomoa den Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutuak sektorearen kostu estandarrak aztertu zituen 2020an (txosten argitaragabea). Euskarabidearen hedabideen deialdira aurkeztutako komunikabideak aztertu zituen, hain zuzen ere. Txosten hark euskarazko komunikabideen prekaritate kezkarria utzi zuen agerian. Batez ere, historikoa delako, ez baita une zehatz bati erantzuten dion egoera, eta esparru askotan azaleratzen delako prekaritate hori, ondoko lerroetan azalduko den bezala.

Langileen soldata

Komunikabideen sektoreko soldatarik baxuenetakoak dituzte euskarazko komunikabideetako langileek. Lanaldi osoko langile-kostuaren batez bestekoa 30.067,2 € da, Euskarabideak 2020ko kostu estandarren txostenean azaldutako datuen arabera (enpresaren gastua, gizarte-segurantza sartuta). Espainiako komunikabideen pertsonal-kostuaren batz bestekoaren 50.471 euroen oso azpitik dago (INERen datuak). Hain zuzen ere, **ohiko komunikabideetako langileen soldata baino % 40 baxuagoak** dira euskarazko komunikabideetako kazetariak jasotzen dituztenak.

1. taula. Komunikabideen sektoreak Espainian dituen batez besteko lanaldiko langile-gastuak.

	Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionalako multzoak					
	5813	5814	5916	6010	6020	
	Egunkariaren argitalpena	Aldizkariaren argitalpena	Telebista saioetako produkzio jarduerak	Irrati difusioko jarduerak	Telebistako saioak programatu eta eskaintzeko jarduerak	Batez beste
Ordainpeko langileen pertsonal gastuak lanaldiko (Iturria: INE, Espainiako estatua, 2017)	46.342€	47.401€	45.413€	42.985€	57.998€	50.471€
Pertsonal gastuak okupatutako langileko (Iturria: INE, Espainiako estatua, 2017)	42.376€	35.333€	42.421€	36.262€	55.417€	45.595€
Siadeco_EAEko euskarazko hedabideen kostu estandarretako azterketa 2018 (Iturria: Eustat, 2015)	52.847€	31.443€	39.447€	48.081€	61.338€	50.544€

Iturria: Euskarabideak 2020an egindako Nafarroako euskarazko komunikabideen kostu estandarren txostena.

Lantaldeen tamaina

Nafarroako euskarazko komunikabideetan 67,5 lanaldi oso daude, guztira. Lanaldi horiekin, papereko 18.800 orrialde ekoizten dira urtean, 38.480 ordu emititzen dira irrati-tan, eta 17.472 ordu telebistetan, Interneteko, sare sozialetako eta beste euskarrietako ekoizpenaz gain. Lantalde txikiegiak dira produkzio horri erantzun ahal izateko.

Komunikabideen ohiko lan guztiak kide gutxiren artean egin behar dituzte, hasi kudeaketa ekonomikotik, erredakzioa, plangintza, sare sozialen kudeaketa eta datugintzaraino. Horrek funtzio anitzeko izaera konplexua ematen die euskarazko kazetariei, eta nekez gauzatu daiteke espezializazioa.

Ordaindu gabeko lanak

Ez dagoenez nahikoa kazetari ordaintzeko gaitasunik, ohiko bihurtu da komunikabideek komunitateko kolaboratzaileen eta boluntarioen lanari esker irautea. Deigarria da tokiko komunikabideetan boluntariotzak hartzen duen dimentsioa:

- Euskarazko idatzizko komunikabideetan, lanean ari direnen **% 15,1 soilik dira kontratupeko langile**, % 57,1ek kolaboratzaile edo *freelance* dihardute, eta % 27,8k borondatez eta diru-trukerik gabe lan egiten dute.
- Irrati-tan, **% 8,6** bakarrik dago kontratupean; beste % 80,1 boluntarioak dira, eta % 11,3 kolaboratzaileak.
- Telebistetan, **% 37,5** dago kontratupean, eta gainerakoak, % 62,5, kolaboratzaileak dira.

Batez besteko datuetatik harago, bada batere soldatapeko langilerik ez duen komunikabiderik ere.

Prekarizazioaren beste aurpegiak

Beste esparru batzuek ere erakusten dute sektorearen prekaritate-maila: komunikabide batzuek ez dute lokalik jabetzan, azpiegitura tekniko zaharkituak dituzte, kontratupeko langileek iraupen txikiko kontratuak dituzte maiz, eta, ondorioz, talentuari eusteko zailtasun handiak azaltzen dira.

Prekaritatearen sustraiak

Euskara hizkuntza gutxitua da eta, gaur-gaurkoz, euskaraz lan egiten duten komunikabideek audientzia- eta harpidetza-potentzial oso mugatuak dituzte. Horrek ondorioak ditu hiru maila nagusitan:

- Produkzio-kostu erlatiboak handitu egiten ditu.
- Salmentak eta, ondorioz, diru-sarrerak ezinbestean txikiagoak dira.
- Audientzia hain mugatua izanik, ezinezkoa da publizitate pribatua lortzea.

Kostu handiegiak, salmenta txikiak eta publizitate-sarrera urriak daude euskarazko komunikabide guztien prekaritatearen oinarrian. Hizkuntza handien komunikabideen aldean, diru-sarrerak eta gastuak arras deskonpentsatuta daude. Faktore horiek zaurgarritasun ekonomiko larrian uzten dituzte euskarazko komunikabideak. Nafarroako errealitate soziolinguistikoan bizirik irauteko, ezinbestekoa dute erakunde publikoen laguntza-sistema sendoa.

5.5. NAFARROAKO GOBERNUAREN INBERTSIOA KOMUNIKABIDEETAN

Erakunde publikoen dirua bi bide nagusitatik iristen da komunikabideetara: dirulaguntza publikoetatik eta publizitate instituzionaletik. Nafarroako Gobernuak 5.028.998 euroko inbertsioa egin du azken urtean komunikabideetan, bi bideak kontuan hartuta, eta haietatik **% 30 jaso dute euskarazko komunikabideek. Gainerako % 70 gaztelaniazko komunikabideek jaso dute.** Komunikabideei bideratutako Gobernuaren dirulaguntzen azken ebazpenetako eta publizitate instituzionalaren txosteneko datuak aztertuta ateratako ondorioak dira. Jarraian, datuak xeheago emango dira.

Dirulaguntza bidezko inbertsioa

Nafarroako Gobernuak lau bide nagusi baliatzen ditu komunikabideei dirulaguntza bidez laguntzeko:

- Hitzarmen bidezko laguntza, Nafarroako Gobernuaren Komunikazioaren eta Proiektzio Instituzionalaren Zuzendaritza Nagusiak kudeatua: [1.700.000 € eman zaizkio 2024an](#)¹⁵ gaztelaniazko lurreko telebista digital pribatuari.
- Ikus-entzunezkoak ekoizteko laguntzak, Nafarroako Gobernuaren Komunikazioaren eta Proiektzio Instituzionalaren Zuzendaritza Nagusiak kudeatua: [787.637 € banatu dira 2023an](#)¹⁶ gaztelaniazko eta euskarazko telebisten artean (oharra: txosten hau idatzi den unean, 2024ko dirulaguntzak ebatzi gabe zeuden).
- Idatzizko prentsarako, irratietarako eta online komunikabideetan euskararen erabilera sustatzeko laguntzak, Nafarroako Gobernuaren Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutuak kudeatua: [1.197.900 € banatu dira 2023an](#)¹⁷, euskarazko komunikabideen eta euskaraz zerbait argitaratzen duten gaztelaniazko komunikabideen artean (oharra: txosten hau idatzi den unean, 2024ko dirulaguntzak ebatzi gabe zeuden).

- Euskarazko komunikabideetan berrikuntza- eta digitalizazio-proiektuetarako laguntzen deialdia, Nafarroako Gobernuaren Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutuak kudeatua: [177.862,66 € banatu ditu 2023an](#)¹⁸ euskarazko komunikabideak laguntzeko (oharra: txosten hau idatzi den unean, 2024ko dirulaguntzak ebatzi gabe zeuden).

2023. urtea izan da euskarazko komunikabideek historikoki diru gehien jaso duten urtea, eta lau laguntzak kontuan hartuta, Nafarroako Gobernuak dirulaguntzetan emandakoaren **% 39,4** jaso dute euskarazko komunikabideek.

18/1986 Foru Legeak¹ administrazio publikoari euskara komunikabideetan sustatzeko ezartzen dion betekizunari jarraikiz, Euskarabidea- Euskararen Nafar Institutuak 2016an abiatu zuen euskaraz edukiak argitaratzen dituzten komunikabideak laguntzeko dirulaguntza-deialdia, eta 2021ean, berrikuntza eta digitalizaziorako deialdia. Hau da orduraz geroztik bi deialdiek izan duten bilakaera:

2. taula. Hedabideen deialdia eta digitalizaziorako deialdiaren horniduraren bilakaera.

Horniduraren bilakaera (2015 – 2024)			
Urtea	Hornidura	Hedabideen deialdia	Digitalizaziorako deialdia
2015	0,00 €	0,00 €	
2016	290.000,00 €	290.000,00 €	
2017	580.000,00 €	580.000,00 €	
2018	630.000,00 €	630.000,00 €	
2019	680.000,00 €	680.000,00 €	
2020	780.000,00 €	780.000,00 €	
2021	920.912,00 €	895.912,00 €	25.000,00 €
2022	1.017.500,00 €	971.000,00 €	46.500,00 €
2023	1.317.500,00 €	1.071.000,00 €	246.500,00 €
2024	1.497.379,87 €	1.225.879,87 €	271.500,00 €

Iturria: Euskarabidea, 2024ko ekaina (2021 urteko diru-hornidura deialdi bakar batean zegoen, nahiz helburu desberdinetarako izan. Handik aitzina, bi deialdi desberdin egin dira).

Publizitate instituzionalaren datuak

Publizitate instituzionalari dagokionez, 2023an, Nafarroako Gobernuak 1.075.367,28 € inbertitu zituen publizitatean, komunikabideei lotuta. Haietatik % 93,2 gaztelaniazko komunikabideek jaso zuten, eta **% 6,8** bakarrik inbertitu zen euskarazko komunikabideetan.


5.6. EUSKARAREN NORMALIZAZIOARI LAGUNTZEKO AHALMENA

Euskarazko komunikabideak laguntzeko dirulaguntza-sistema eraginkor bat izatea bide baliagarria da hizkuntzaren normalizazioan urratsak egiteko. Egoera prekarizatuan lan egiten duten arren, euskarazko tokiko komunikabideek irismen handia dute. CIESen 2023ko datuen arabera¹⁹, Nafarroako populazio osoaren % 8,7k kontsumitu zituen euskarazko tokiko komunikabideak (50.000 pertsona inguru). *Diario de Navarra* populazio osoaren % 17,4k kontsumitu zuen (100.000 bat lagun), eta *Diario de Noticias* % 11k (65.000 bat lagun). Datuak bakoitzaren audientzia potentzialarekiko aztertuz gero, **euskarazko tokiko komunikabideak beren unibertso potentzialaren % 65,1era iristen dira, *Diario de Navarra* % 18,4ra eta *Diario de Noticias* % 11,9ra.**

Datuek frogatzen dute irismen erlatibo oso altuko komunikabideak direla euskarazko tokiko komunikabideak eta, prekaritatetik ateraz gero, euskararen normalizazioari eragiteko erreminta ahalsua direla.

Komunikabideek joera kezkarria bizi dute nazioartean: informazioa saihesteko joera nagusitzen ari da, eta komunikabideen irismena beherantz doa 2021etik. Nafarroako euskarazko komunikabideetan, ordea, kontsumoak gora egiten jarraitzen du, Behategiak (Euskal Hedabideen Behatokia) emandako datuek frogatzen duten moduan. Beraz, euskararen normalizaziorako ez ezik, desinformazioari aurre egiteko tresna ere badira euskarazko komunikabideak.

3. grafikoa. Hekimen elkarteko euskarazko komunikabideen Interneteko kontsumoen eboluzioa.



Iturria: Behategia (Euskal Hedabideen Behatokia), 2024ko ekaina.

Prekaritate-baldintza horietan murgilduta, ordea, komunikabideen sektore osoak aurrez aurre duen erronka global bati egin behar dio aurre: digitalizazioak kazetaritzan ekarri duen iraultza.

6. TRANTSIZIO DIGITALA: SEKTOREA BIRMOLDATZEKO UNEA

Aldaketa sozial eta teknologiko azkarreko urteotan, komunikabideen sektoreak ziurgabetasun handiko garaiak bizi ditu. Digitalizazioa ez da edukia webgunean argitaratze soil, askoz harago doan iraultza bat baizik. Digitalizazioak eta gerora etorri den adimen artifizial sortzailearen iraultzak goitik behera aldatu dute informazioa kontsumitzeko modua, datuen analisi erraldoietan murgilduz, komunikabideen negozio-eredu tradizionalei desafio eginez eta etengabe egoera berrietara egokitzen behartuz. Komunikabideak erroten aldatzen ari dira.

Energia berriztagarrietarako trantsizioak edo autoen elektrifikazioak sektore industrial jakin batzuen birmoldaketa eta Gobernuaren laguntza behar izan zuten bezala, komunikabideek ere birmoldaketa-garaiak bizi dituzte une honetan. Garai kritikoak dira, gainera, albiste faltsuek eta desinformazioak gizartean gatazka sortu eta demokrazia bera kolokan jartzen baitute. Garrantzitsua da gizartea komunikabideen birmoldaketak eta modernizazioak zer dimentsio sozial duen jabetzea.

Horren erakusle dira Europako Parlamentuak onartutako Hamarkada Digitalean Europako komunikabideen berreskuratze eta eraldaketa bultzatzeko ekintza-plana, bai eta Europako Kontseiluaren Biltzarrak iaz estatuei egindako eskaera bera ere.

Hauek dira komunikabideek eskuartean dituzten erronka handietako batzuk, prozesuan kontsultatutako adituen arabera:

Kontsumo-ereduen aldaketa eta formatu berriak

Plataforma digitalek eta sare sozialek erabat aldatu dute gizarteak informazioa kontsumitzeko modua. Gero eta gutxiago kontsumitzen dira komunikabideen formatu tradizionalak. Informazioa modu azkar eta bisualean kontsumitzera ohitu da gizartearen zati handi bat, eta komunikabideek, formatu tradizionalak baino, formatu berrietan ere ekoiztu behar dute: streaming zerbitzuak, ikus-entzunezko laburrak, podcastak, grafiko interaktiboak, sare sozial aldakorrak, errealitate areagotua, pertsonalizazioa... Testuinguru horrek etengabe eta jarrera proaktiboz egokitzen behartzen ditu komunikabideak, lehiakor izan nahi badute.

Audientzia ezagutzeko eta kontsumoa pertsonalizatzeko erremintak

Egungo entretenimendu-eskaintza digital handiaren ondorioz, pertsonen arreta gero eta txikiagoa da, informazio-iturri asko baina denbora laburrean kontsumitzen baitira mugikorren, ia joera konpultsiboan. Komunikabideek audientzia hori erakartzeko, audientzia ongi ezagutu, segmentatu eta haien interes eta kezka zehatzei erantzuteko erronka dute.

Horretarako, teknologia aurreratuak integratu behar dituzte beren sisteman: audientzia ongi ezagutu eta segmentatzeko teknologiak, analitika digitalerako lanabesak, edukia kudeatzeko plataformak (CMSak) eguneratu behar dituzte, txatbotak integratu, alerta pertsonalizatuak egiteko teknologiak eta halakoak.

Negozio-ereduen berregituraketa

Kontsumo-joera berriek sarrera ekonomikoak ekartzen zituzten formatu tradizionalak bazterrean utzi dituzte. Testuinguru mediatiko berrian, ordea, zaila da komunikabideentzat formatu digitalak monetizatzea. Publizitateak ere hobeki segmentatzen duen esparruetara ihes egin du (sare sozialetara, besteak beste). Ondorioz, gero eta lehiakorragoa den eremu digitalean bizirik irauteko, diru-iturriak dibertsifikatu eta negozio-ereduak errotik aldatu beharrean dira komunikabideak. Trantsizio ekonomiko bete-betean daude.

Kudeaketa adimentsuagoa

Adimen artifizialak edukien kudeaketa adimentsuagoa egiteko aukera eman du hizkuntza nagusietako komunikabideetan. Datuen meatzaritza da teknologia horietako bat: komunikabideek sortutako edukietatik ezagutza xehea erazteko modua ematen duenez (hala nola deskriptore tematiko nagusiak, elkarriketatuen izenak, erakundeak, lekuak, hitz gakoak...), edukia sailkatu eta mikrosegmentatzeko aukera ematen du, eta komunikabideek artxibo digital ongi egituratuak lortuko dituzte.

Erabiltzaileen esperientzia hobetzen lagunduko du, intereseko edukiak errazago identifikatzen lagunduko baitie. Baina ez hori bakarrik: trafikoaren analisia egiteko erremintekin integratuz, kontsumo-patroiak identifikatu eta pertsonalizazioaren bidea jorratzeko balio du. Testuen meatzaritzak Interneteko edukiak aztertu eta gaurkotasun-gaiak edo patroiak identifikatzeko eta jarraipena egiteko aukera ematen du jada.

Adimen artifizial sortzailearen erronkak

Adimen artifizial sortzaileak inpaktu handiko lan-tresnak jarri ditu eskura hizkuntza nagusietako komunikabideentzat: jada oso aurreratuak dituzte testuen sorkuntza automatikoa, edukien laburpen automatikoak sortzeko teknologia, sare sozialetako argitalpenak jatorrizko edukitik automatikoki sortzeko erremintak, kontzeptu- edo datu-multzoak testu bihurtzeko baliabideak (esaterako, finantza-txostenetatik, kirol-emaitzetatik, eguraldiaren aurreikuspen-datuetatik edo bestelako datu egituratuetatik albisteak automatikoki sortzeko tresneria). Dagoeneko, eskura dituzte lan askotarikoak automatizatzeko aplikazioak.

Bestetik, testuen sorkuntza automatikoko teknologiak eta testuen meatzaritzako teknologiak uztartuta, Chat GPT moduko galdera-erantzun sistemak garatzen ari dira. Halakoak komunikabideen egungo bilatzaileen orde ezarriko dira, eta bilaketa-sistemak irauliko dituzte: irakurlearekiko harremana aldatuko dute, erabat. Epe laburrean, martxan ikusiko dira halako txatbotak komunikabide indartsuenetan, eta zerbitzu, produktu eta funtzionalitate berriak ekarriko dituzte.

Datugintza

Komunikabideek datu-bolumen ikaragarria maneiatzen dute: trafiko digitalaren datuak, nabigazio-patroien datuak, erabiltzaileen ezagutzaren inguruan sortutako datuak, joeren analisirako datuak, publizitatearen errendimendu-datuak, sare sozialetako datuak, erabiltzaileen datuak... Horiek guztiak

biltzeko, aztertzeko eta modu eraginkorrean kudeatzeko erremintak integratzeaz gain, horretan trebatutako langile-profil berriak integratu behar dituzte lantaldean.

Profil berriak kazetaritzan

Datu-base handien analisia eginen duten matematikariez gain, bestelako ezagutzak dituzten profesionalak ere integratu behar dituzte: besteak beste, adimen artifiziala eta prozesuen automatizazioa bideratzeko gai diren profesionalak. Areago, egungo kazetaritza-ereduak etengabeko formakuntza eskatzen du.

Segurtasun-sistema aurreratuak

Digitalizazioaren ondorioz, komunikabideak inoiz baino zaurgarriago dira, segurtasunerako zirrikituak asko baitira. Erabiltzaileen datuak eta informazioa babestea etengabeko erronka da inoiz baino gehiago, eta segurtasun-sistema aurreratuak behar dituzte.

Zerbitzari handiak

Komunikabideek, azken belaunaldiko teknologia horiek guztiak baliatzeko, azpiegitura garestia behar dute atzean: zerbitzari handiak behar dituzte datu-bolumen handiak erabili eta adimen artifizialeko algoritmoak martxan jartzeko, datu-baseak kudeatzeko tresnak, sare-azpiegitura azkarrak, datuak eta adimen artifizialeko ereduak babesteko segurtasun-neurriak...

Komunikabide irisgarriagoak

Gizartearen sektore guztientzat irisgarriago bilakatuko dituzten teknologiak ere txertatzen ari dira komunikabideak: besteak beste, itzultzaile automatikoak, transkripzio-sistema automatikoak (entzumen urriko erabiltzaileek edukia irakur dezaten) eta ahots sintetikoak sortzeko teknologiak (ikusmen urriko erabiltzaileek edukia entzun dezaten).

Kalitatezko kazetaritza

Eta erronka teknologiko horien guztien gainetik, kalitatezko kazetaritza egitea da komunikabideek duten erronka nagusia, gizartearentzat baliagarriak izatea, hori baita komunikabideek gaur egungo testuinguru zaila gainditzeko duten bide bakarra.

Zein da, ordea, kalitatea definitzeko irizpide egokia? Orain arte, klikak, like-ak eta antzeko metrikak erabili izan dira, “harrokeriaren edo hutsalkeriaren metrikak” deitu direnak, ez baitute ematen inpaktu errealean berri, populartasunaren berri baizik. Komunikabideek gizartearekin duen konpromiso-maila eta eskaintzen dion balioa da benetan kazetaritzaren kalitatearen neurria ematen duena: ezagutza esanguratsua zabaltzea, balio soziala eta inpaktua.

6.1. EUSKARAZKO KOMUNIKABIDEAK EGUNGO ERRONKEN AURREAN

Erronka horien aurrean, Nafarroako euskarazko komunikabideek badituzte hainbat indargune esanguratsu: marka indartsuak dira eta komunitate fidela dute ondoan, euskararen normalizazio-

prozesuaren helburu handi horrekin bat egiten duena eta sostengu ekonomiko zein antolaketa-mailakoa ematen diena. Harpidedun, bazkide eta kolaboratzaile-sare sendoa dute, eta horrek berme ekonomiko eta soziala ematen die komunikabideei.

Bestetik, esperientzia handiko profesionalak dituzte, komunikabideekiko eta haien funtzio sozialarekiko konpromiso handia dutenak. Langileek eta komunitateak inplikazio handi hori izan ez balute, aspaldian desagertuta egongo ziratekeen euskarazko komunikabideak, nazioartean gertuko komunikabideen joera orokorrari jarraikiz. Bi noranzkoko konpromiso horrek erresilientzia handiko komunikabide bihurtu ditu parean duten trantsizio digital konplexuaren eta kontsumo-ohituren aldaketaren aurrean.

Azkenik, adimen artifizialaren olatuak zailtasun handiko erronka ezarri die hizkuntza gutxituei. Hizkuntza hegemonikoak ez bezala, hizkuntza gutxituek ez dituzte eskura adimen artifizialeko teknologia guztiak. Enpresa handien soluzioak (Microsoft, Google, OpenAI...) ez dira euskarara eta bestelako hizkuntza gutxituetarako berdin garatzen. Egoera horren aurrean, euskarazko komunikabideak euskararentzat adimen artifizialeko teknologiak garatzen protagonista eta sustatzaile nagusi bihurtu dira. Euskarak beso teknologikoa baduela aprobetxatuz, hizkuntza-teknologietako ikertzaileekin elkarlanean aritzen dira, euskarak aro digitalean sartzeko beharrezkoak dituen erremintak sortuta, bestela izanen ez lituzkeenak.

Ekimenez heldu diete euskarazko komunikabideek egungo erronkei. Alabaina, badituzte hainbat ezaugarri bereziki zaugarri egiten dituztenak:

- Audientzia potentzial mugatua izateak iraupen-ekonomia batera daramatza euskarazko proiektu mediatikoak. Prekarietatea nagusi da: soldatak ez dira duinak, lanpostuak ez dira egonkorak, lan-gainkarga handiak dituzte langileek eta, oro har, lanerako materiala zaharkitua dago. Lan-baldintza eskasetan egiten du lan sektoreak.
- Baldintza horietan, trantsizio digitalari heltzeko baliabide ekonomikoen erabateko gabezia dute.
- Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza jasotzen duten arren, ia ez dute publizitate instituzionalik jasotzen, eta hori da erakunde publikoek komunikabideak zeharka laguntzeko baliatzen duten tresnarik ohikoena eta indartsuena.
- Ez dute kazetaritza-eskaintza berritzeko eta produktu berriak plazaratzeko baliabiderik.
- Inbertsioak egiteko gaitasuna ere oso mugatua da.
- Nafarroako lurralde osoan, geografikoki oso egoera desorekatua pairatzen dute: proiektu komunikatibo gutxi eta atomizatuak daude.
- Euskaldunen unibertsoa bera ere mugatua eta geografikoki desorekatua da, eta txikiegia da egitasmoen bideragarritasun ekonomikoari eusteko.
- Euskararen normalizazio-prozesuak abiada geldoa darama; ondorioz, audientzia potentziala ez da handitzen.

Baldintza horietan, nekez gauzatuko da euskarazko komunikabideen eguneratzea eta trantsizio digitala.

6.2. EUSKARAZKO KOMUNIKABIDEEN BEHARRAK

Trantsizio digitala gauzatu eta euskararen biziberritze-prozesuan eragile aktibo izateko, hainbat oinarritzko behar dituzte euskarazko komunikabideek:

- Euskarazko komunikabideak prekaritateetik ateratzeko laguntza.
- Komunikabideen iraunkortasuna bermatzeko laguntza-politika egokia.
- Digitalizazioari eta eraldaketari heltzeko finantzaketa.
- Proiektu komunikatibo berriak sortzeko finantzaketa-lerro egonkorra.
- Trebakuntza bermatzeko inbertsioak.
- Erabiltzaileen eta erabiltzaile potentzialen ezagutzan sakontzeko erreminta partekatuak.
- Datugintza eta metrika berriak lantzeko sistema eraginkorra sortzea.
- Hizkuntza-teknologiak eta adimen artifiziala garatu eta inplementatzeko baliabideak.
- Ikus-entzunezkoen ekoizpena handitzeko beharrezko trebakuntza eta tresneria.
- Digitalizaziorako eta erronka berrietarako sortu behar diren lanpostu/profil berriak sortzeko baliabideak.
- Euskarazko komunikabideak Nafarroako eremu geografiko berrietara zabaltzeko plana adostea.
- Euskarazko komunikabideen indartzea ekarriko duen plan estrategikoa, administrazioekin adostua.
- Euskararen normalizazio-prozesua bizkortzeko neurri eraginkorrak hartzea, euskaldun-kopurua eta haien hizkuntza-kalitatea handitzeko helburuz.
- Sektoreari prestigioa ematea, besteak beste, Nafarroako Gobernutik euskarazko komunikabideei lehentasuna eskainiz.

7. BIDEGURUTZEAN: APUSTU SENDO BATEN BEHARRA

Testuinguru honetan, EUSKARAREN NAFAR KONTSEILUAREN barneko KOMUNIKABIDEEN LAN-BATZORDEAK beharrezkoa ikusten du Nafarroako euskarazko komunikabideak laguntzeko neurri gehigarriak hartzea, urgentziaz, 18/1986 Foru Legeak ezarritakoari¹ jarraikiz. Gertuko komunikabideen krisi globalak, euskarazko komunikabideen prekaritateak, digitalizazio-erronkek eta euskararen normalizazioaren emaitza eskasek egoera oso zaurgarrian utzi dituzte Nafarroako euskarazko komunikabideak. Neurriak hartu ezean, komunikabide horietako asko desagertzeko arriskuan daude.

Bestetik, Nafarroako eskualde anitzek ez dute euskarazko komunikabideen inolako sarerik. Bertako euskal komunitateak erabateko basamortu informatiboa pairatzen du. Demokrazia eta eskubide sozialak bermatzeko, eta euskararen normalizazioan oinarritzko urratsak emateko, ezinbestekoa ikusten

da euskarazko tokiko komunikabideen egungo hutsune geografikoak aztertu eta horiek betetzeko neurriak hartzea.

EUSKARAREN NAFAR KONTSEILUAREN barneko KOMUNIKABIDEEN LAN-BATZORDEAK ohartarazi nahi du, Egungo komunikabideen prekaritateari erantzun duina eman eta hutsune geografikoak gainditu ezean, Nafarroako euskaldun ugari desertu informatibo larria pairatuko duela.

Gabezia horiek guztiak betetzeko, euskarazko nafar komunikabideek Nafarroako gizartearen eta erakunde publikoen babesa behar dute. Trantsizio digitalari aurre egin eta haien iraunkortasuna bermatzeko laguntza-politika ausarta behar da, ezinbestean. Bestela, nekez eutsiko diote euskararen normalizazioan eta gizarte-kohesioan duten eginkizunari.

8. EUSKARAZKO KOMUNIKABIDEEN ITZULTZE EKONOMIKOA

Euskarazko komunikabideetan inbertitzea gastu publiko bat dela pentsa liteke, baina ikerketek frogatu dute **gastua izan beharrean inbertsio ekonomiko errentagarria** dela. Ez soilik betetzen dituzten funtzio sozial guztiengatik, baita zuzenean ekonomiari egin diezaioketen ekarpenagatik ere.

Konparaziorako, [Mondragon Unibertsitateko ikertzaileek euskarazko komunikabideek EAEko gizarteari egiten dioten ekarpen ekonomikoa kuantifikatu dute](#)¹². Sortutako lanpostuak, zergetan eta gizarte-segurantzian ordaindutakoa eta inguruko enpresei egiten dieten ekarpena monetizatzeko ariketa egin dute, eta frogatu dute **jaso duten dirulaguntza-euro bakoitzeko 6-10 euro itzuli dizkiotela gizarteari**. 6-10 aldiz handitu dute jasotako diruaren balioa.

Ikertzaileen arabera, emaitzak estrapolatzeko modukoak dira Nafarroako euskarazko komunikabideetara ere. Datuok erakusten dute Nafarroako euskarazko komunikabideei ematen zaizkien dirulaguntzak inbertsio errentagarria direla.

9. AZKEN ONDORIOAK

Gero eta handiagoa da euskaraz dakiten nafarrak, belaunaldi gazteenen artean batik bat. Demografikoki gero eta pisu handiagoa izan arren, komunitatea egituratzeko eta euskara egunerokotasunean txertatzeko baliabideak falta ditu.

Euskarazko komunikabideek ekarpen handia egin diezaioketen nafar gizarteari zeregin horietan. Baina, funtzio sozial garrantzitsu hori bete ahal izateko, gizartearen eta erakunde publikoen inplikazioa behar dute une honetan: babes ekonomikoa eta babes soziala.

Euskarazko komunikabideen sektoreak historikoki bizi duen prekarietateak eta komunikabideen eraldaketa globalak erronka handiak ekarri ditu, eta gizarteak erronka horien dimentsioa ulertu eta lagundu ezean, desagertzeko arriskuan egon dira euskarazko komunikabideak.

Europako Parlamentuak estatu kideei berariaz eskatu die hizkuntza erregional eta minorizatueta-ko edukiak sortzen dituzten komunikabideak diruz laguntzeko. Horregatik, eta Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legeari erreferentzia eginez, EUSKARAREN NAFAR KONTSEILUAREN barneko KOMUNIKABIDEEN LAN-BATZORDEAK hori bera eskatzen die nafar erakunde publikoei eta gizarteari: euskarazko komunikabide indartsuak izateko laguntza ekonomikoa eta haien balio soziala ikusarazteko laguntza soziala.

BIBLIOGRAFIA

- (1) 18/1986 Foru Legea, Euskarari buruzkoa. <https://www.navarra.es/NR/exeres/80CF3F15-A9C6-40B2-867B-F7C50905CCD6.htm>
- (2) Barnett, S., & Townend, J. (2015). Plurality, Policy and the Local. *Journalism Practice*, 9, 332 - 349. <https://doi.org/10.1080/17512786.2014.943930>
- (3) Jangdal, L. (2019). Local Democracy and the Media. *Nordicom Review*, 40, 69- 83. <https://doi.org/10.2478/nor-2019-0027>
- (4) Meijer, I. (2010). Democratizing Journalism?. *Journalism Studies*, 11, 327 - 342. <https://doi.org/10.1080/14616700903500256>
- (5) Moy, P., McCluskey, M., McCoy, K., & Spratt, M. (2004). Political Correlates of Local News Media Use. *Journal of Communication*, 54, 532-546. <https://doi.org/10.1111/J.1460-2466.2004.TB02643.X>
- (6) Europako Parlamentua (2021). *Report on Europe's Media in the Digital Decade: An Action Plan to Support Recovery and Transformation* (A9-0278/2021). https://www.europarl.europa.eu/doceo/document/A-9-2021-0278_EN.pdf
- (7) Meijer, I. C. (2010). Democratizing Journalism? Realizing the citizen's agenda for local news media. *Journalism Studies*, 11(3), 327-342. <https://doi.org/10.1080/14616700903500256>
- (8) Europako Batzordea (2020). *Europe's media in the digital decade: An action plan to support recovery and transformation* (COM(2020) 784 final). <https://eur-lex.europa.eu/legal-content/EN/TXT/?uri=CELEX%3A52020DC0784>
- (9) Europako Kontseilua. (2021eko abenduak 1). *Local and regional media: Council of Europe Congress calls for more support to prevent local media deserts*. <https://www.coe.int/en/web/portal/-/local-and-regional-media-council-of-europe-congress-calls-for-more-support-to-prevent-local-media-deserts>
- (10) Euskarabidea (2021). Nafarroako VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021. https://www.euskarabidea.es/fitxategiak/ckfinder/files/VII_%20Inkesta%20Soziolinguistikoa_2021_NAFARROA.pdf
- (11) Soziolinguistika Klusterra (2022). *Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa, 2021*. https://soziolinguistika.eus/wp-content/uploads/2022/05/hekn21_emaizen_laburpen_txostena.pdf
- (12) Bidegain, E., Agirre, I., Amonarriz Zubeldia, J., & Larrañaga Elorza, A. (2016). Goienera eta BERRIA komunikabideen balio soziala: neurgailu berri baten lehen egokitzapenak, euskal prentsarako. *Uztaro. Giza Eta Gizarte Zientzien Aldizkaria*, (98), 79–96. <https://doi.org/10.26876/uztaro.98.2016.4>
- (13) Euskal Hedabideen Behatokia (Behategia) (2024). Bidegain, E; Zuberogitia, A; Egaña, T. Euskarazko komunikabideen balio soziala: Argia-ren eta Alea-ren kasu azterketak, *Euskarazko Hedabideen Urtekaria*, 71-84. <https://research.mondragon.edu/documentos/661828721bfcac29359c8562>

- (14) Euskaltzaindia (2022), Euskararen gogoetagunea, Jon Sarasuaren hitzaldia. <https://www.youtube.com/watch?v=PrBnj0ShxTQ>
- (15) Nafarroako Gobernua (Komunikazio eta Erakunde Proiektzio Zuzendaritza). Sumando TV y Web SA enpresari (Navarra TV telebista autonomikoko operadorea) emandako 1.700.000 euroko zuzeneko dirulaguntza, 2024ko uztailaren 1etik 2025eko ekainaren 30era bitarteko ikus-entzunezko produkzioarako. BDNS identifikazioa: 0000765388. 47E/2024 EBAZPENA. 2024ko ekainak 26. https://www.navarra.es/documents/48192/24555525/Resolucion+Concesion+sin+anexo_01_73E-2023_CSV.pdf/b66b063d-7102-64e3-18e6-62fa5cc5a43f?t=1690796830629
- (16) Nafarroako Gobernua (Komunikazio eta Erakunde Harremanetarako Zuzendaritza). Nafarroako lurreko telebista digitaleko (LTD) lizentzia pribatuen titularrek ikus-entzunezko edukiak ekoizteko 2023-2024ko laguntzen urte anitzeko deialdiaren ebazpena. 73E/2023 EBAZPENA. 2023ko uztailak 28. <https://www.navarra.es/documents/48192/34570714/Resolucion+Concesion+Directa+sumando+TV.pdf/aff860f5-71a2-2970-a3ec-3c5eec400edb?t=1719409984401>
- (17) Euskarabidea (Euskarabideko zuzendari kudeatzailea). “Idatzizko prentsan, irratieta eta online hedabideetan euskararen erabilera sustatzeko laguntzen 2023ko deialdiaren ebazpena”. 47E/2023 Ebazpena. 2023ko ekainak 20. https://www.navarra.es/documents/48192/21314073/Bigarren+ordainketaren+ebazpena_20231227135225_CSV.pdf/c680befc-778f-138f-05a1-8359f7e0b98e?t=1703749907109
- (18) Euskarabidea (Euskarabideko zuzendari kudeatzailea). “Euskarazko komunikabideen berrikuntzarako eta digitalizazioarako proiektuei emandako laguntza-deialdiaren ebazpena”. 61E/2023 Ebazpena. 2023ko abuztuak 11. https://www.navarra.es/documents/48192/25378479/61E-20223+EBAZPENA_20230816133342_CSV.pdf/5c905992-f63e-97dc-7271-eb5bd272905e?t=1692254043810
- (19) CIES. 2023ko inkestaren datu-basea, urteko metatua. Estudio de Audiencia de Medios de Comunicación en la C. A. de Euskadi y Navarra. <https://cies2.com/es/que-hacemos/audiencia-de-medios>